



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DONOSTIAKO UDALAREN ETA 2005-EKO EKITALDIAN ERAGINA IZAN DUTEN UDALAK IZENPETUTAKO HIRIGINTZAKO HITZARMENEN 2005-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Donostiako Udalaren 2005eko fiskalizazio lana eta 2005ean eragina izan duten Hirigintzako Hitzarmenei buruzko txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. HKEEren lanak Udala bera ez ezik, bere Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak ere besarkatzen ditu.

Udalaren legezketasunari buruzko atalean, Epaitegiaren iritzia aldekoa da udalaren ekonomia-finantza jarduerari ezargarria zaion arautegia betetzeari dagokionez; nolana dela ere, hainbat ez betetze aipatu ditu.

Aurrekontuari eta kontuak aurkezteari dagokionez, erakunde fiskalizatzaileak adierazi du Kontu Orokorrean ez direla La Perla del Océano Bainuetxea, SLren Urteko Kontuak barne hartu, Toki Entitateen Aurrekontuzko Foru Araua urratuz. Berebat, indarreko araudiaren ez-betetze modura hartu da hartutako etorkizuneko obligazioak jasoko dituen konpromiso kredituen egoera ez aurkeztea eta 2005eko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontua ez aurkeztea.

Langileriari dagokionez, udalak ez ditu bereizten aurrekontuaren plantilan kredituzuzkidurak kolektiboan arabera (lan kontratupeko langileak eta funtzionarioak), Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoa urratuz.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak ezargarria den legeriaren hainbat ez betetze jaso ditu: Honela, bada, 2003an amaitu behar zatekeen garbiketa eta hondakinak erretiratzeko kontratua exekutatzeko segitzen da eta “AM 05 Loiolako Ibaiertzak” area urbanizatzeko lanek izugarrizko igoaldia izan dute euren exekuzioan.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Diru-laguntzen alorrean, HKEEk azpimarratu du 136 milioi euroko diru-laguntza izendunak eman direla, eskuratu asmo diren helburuak justifikatzeko beharrezko baldintzak finkatu gabe; honek Diru laguntzen Lege Orokorra urratzen du.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du kontuaren aurkezpen eta edukiari dagokionez, hainbat salbuespen egin dituela: San Martingo Azoka Sozietate Mistoan parte-hartzearen balioa jaso ez izateagatik; gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrenda ez izateagatik; Diruzaintza Geldikina 3,9 milioi euroan murrizten duten kontabilitateko hainbat zuzenketarengatik, 4,7 milioi euroan gelditzen dela.

Udal erakunde autonomoei dagokienez, HKEEren iritzia aldekoa da hemen ere, nahiz eta Erakunde Autonomoek ez dutela aurrekontuko plantilarik adierazten duen. Honez gainera, aurrekontuari buruzko beste salbuespen batzuk barne hartu dira, zenbait Erakunde soilik eragiten dituzten zerga, langileria, kontratazio eta diru-laguntza izaerako obligazioak.

Udal sozietate publikoei dagokienez, txostenak ezargarria den arautegia betetzeari dagokionez ere aldeko iritzia plazaratu du, iritzi orokor hau salbuesten duten hainbat alderdi azpimarratu dituela:

Hirigintza Hitzarmenei buruzko txostenak 2005ean eragina duten aldi horretan izapidetutako 22 hitzarmenetatik 14 aztertu ditu.

HKEEk horien tramitazioa eta exekuzioa aztertzeetik eskuratu dituen ondorio nagusien azalpena egiten du; besteak beste, azpimarratzekoa da onetsi aurretik informazio publikoa emateko izapidea ezartzea, Udalak ezarri duena, nahiz derrigorrezkoa ez izan.. Bestetik, izenpetutako hitzarmenetan finkatutako hainbat obligazio betetzean zenbait atzeraldi izan direla azpimarratu da; baita, hitzarmenetatik 6tan berariazko ez-betetze batzuk ere.